

ZER DA JARDUEREN PROGRAMA?

HELBURUAK

Fundazioko jardueren programaren xedea pertsonaren bizi-maila hobetu, bere gaitasunak mantentzen lagundu eta harremanak eta parte-hartzea bultzatzea da.

Honetarako, hainbat ekintza egiten ditugu arlo sozial, fisiko eta kognitiboan, bai eta aisialdiari dagokionean ere. Txangoak antolatzen ditugu eta kanpoko talde ugari etortzen dira aparteko ekitaldien programaren barruan.

NORI ZUZENDUA DAGO?

Parte hartu nahi duten egoiliar guztientzat da. Senideak eta hurbilekoak ere gonbidatzen ditugu, antolatzen ditugun txango eta ekitaldi berezietan parte har dezaten.

INFORMAZIOA NOLA LORTU?

- Jardueren begiraleen bidez. Bulegoa 0 solairuan daukagu, ile-apaindegiaren parean.
- La Perla txokoko iragarki taulan ikus ditzakezu egunero dauden ekitaldiak. Horrez gain, hileroko jarduerak bereziki ematen duguz. Eta e-mailez ere jasotzeko aukera daukazu.

ZER ESKAINTZEN DUGU?

Ekintzak txokoka antolatzen dira eta egoiliarren profilerara egokitzen ditugu. Goizetan (9:30-13:00) gaitasun-estimulazioa lantzeko jarduerak egoten dira:

- Estimulazio fisikoa
- Estimulazio kognitiboa (memoria gelan)
- Inguruarekiko kontaktua (prentsa eta komunikazio taldeak)

Arratsaldetan ordea (17:00-18:30), ekitaldi ludikoak antolatzen ditugu, denbora-pasa bezala:

- Jokoak (bingoa barne)
- Musika eta dantza
- Pelikulen emanaldia

Hau guztiaz gain, zentroak aparteko ekitaldi andana antolatzen ditu, egoiliarren gizarteratzea sendotzeko: haur-abetesbatzen topaketak, belaunaldi arteko krosa, txangoak, musika eta antzerki emanaldiak...

NOLA EGIN PROPOSAMENAK?

- Jardueretako begiraleen bidez
- La Perlako egongelan dagoen jardueren iradokizun-ontzia erabiliz.

JARDUEREN PROGRAMA

